



EDIKTUA

ETXARRI ARANAZKO UDALA
Kale Nagusia 10 (KP 31820)
Tef. 948460004
udala@etxarriaranatz.com
www.etxarriaranatz.com

TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK 2016

Etxarri Aranazko Udalak, 2015eko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran, aho batez erabaki du:

Lehenbizikoa.-I. Eranskineko udal ordenantzak aldatzea, eta honako tasa eta prezio publiko hauek aplikatzea 2016ko ekitaldian.

Bigarrena.-Erabaki honek 2016ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Hirugarrena.-Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 13.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz, aldatutzat jotzen dira ordenantza fiskalak, erabaki honek eragiten dien neurrian, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aitzina hasiko dira aplikatzen. Aldaketak tarifei baizik eragiten ez dienez, haien testua, aldatu direnak salbu, bere garaian Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hura bera izanen da.

Laugarrena.-Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraituz, erabaki honetako udal ordenantzen tarifak, hasiera batean onesten direnak, Udalaren iragarki oholean egonen dira ikusgai hogeita hamar egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, interesdunek bidezko iruditzen zaizkien erreklamazio, kexa edo oharrak egin ditzaten. Behin betikoz onetsizat joko dira, epe hori erreklamazio, kexa edo oharrak aurkeztu gabe iraganez gero.

Bosgarrena.-Iragarkia argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta ediktuak Etxarri Aranazko Udaleko iragarkien oholean, Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.6.a) artikuluekin bat.

Etxarri Aranatz, 2015eko urriaren 16an
Alkatea: Eneka Maiz Ulaiar

